

Iraupen laburreko zinemaren apologia eta «Pastitxe Baskitxe» bat



K O L D O A L M A N D O Z



Z

inemari eskaintzen zaion monografiko honetan, niri botatako puntua hau izan da:

- Film laburrak: euskal produktuak lortzen ari diren arrakasta.
- Nolako panorama topatzen du zinemagile hasiberri batek?

Eta hasteko eskertzekoa dela pentsatzen dut. Batetik, puntua besterik ez dela aipatu didatelako. Nahi dudan moduan egituratu eta nahi dudan bidetik jotzeko esan dinate. Bestetik, «*film laburrak: euskal produktuak lortzen ari diren arrakasta*» esaldian, behingoz errekonozimendu moduko bat egin zaiolako erregulartasunez ekoiztu eta mundu osora zabaltzen diren euskal ekoizpen zinetatografiko bakarrei. Animaziozko zinema ere ez nuke ahaztu nahi, baina marrazki bizidunek baino prestigio eta oihartzun gutxiago duen iraupen laburreko zinemari arrakasta hori onartzea, niri behintzat detaile bat iruditu zait. Eskertzekoa den beste kontua, film laburra eta gaztetasuna nahastu ez izana da, zinemagile hasiberri horrek ez duelako zergatik gaztea izan behar. Film laburra gazteen edo ikasten ari direnen formatua soilik ez dela barneratzen du esal-

► **Koldo Almandoz** zinemazalea eta zinemagilea da.

diak. Proposamen honen atzean dagoen puntu jartzaileak gaiari bi buelta eman dizkiola behintzat, edo hala dirudi.

Iraupen laburreko filmak

Film laburra era ponposoan azaltzeaz gain, «iraupen laburreko filma» kontzeptua aldarrikapen bat ere bada. Film laburra, egun, zinema-praktika eta gazteen saiakerekin parekatzen delako. Donostiako azken Zinemaldian, *Gara* egunkariak euskal zinemagintza film laburrak egitera «kondenaturik» zegoela aipatzen zuen film laburren egileei eskainitako bi orriko artikuluaen titularrean. Eta kondenu hitz horrek film laburren egileak automatikoki zinemagile frustratu bihurtzen ditu. Maratoia korritzen duen atleta batek 100 metroko froga korritzen duena baino gehiago al da?

Ukaezina da, bestetik, film laburrak beste formatu luzeagoak egiten ikasteko eta trebatzeko balio duela. Formatu laburrak ez du hainbesteko diru inbertsiorik eskatzen eta lantalde murriztagoekin egin daiteke. Zinemagintzako arlo edo lanbide ezberdinetan eskarmentua hartzeko ia ezinbestekoa dela esango nuke film laburretan aritzea. Baina formatu laburra ez da helburu didaktikoetara mugatzen. Film laburra, egun, zinema librearen eremu bakarrinetakoa da. Epe laburreko zinema da, egun, ikuspegi zinematografiko batetik behintzat, erronkak eta bide berriak bilatzen dituen formatua.

Askatasun horren zati handi bat laburren interes komertzial urrian eta prestigio ezan oinarritzen da. Film laburrak bultzatu eta komertzializatu behar direla diogunean ez genuke ahantzi behar, film laburrak negozio izanda, askatasun eta arrisku horiek ze puntutaraino murriztuko liratekeen.

Euskal film laburren (arra)kasta

Film luzeen alboan kasta beheko formatua izanik, euskal film laburrek prestigio handia lortu dute nazioartean. Eta ez da gehiegikeria. Azken urteotan makina bat

sari irabazi izan dira munduko jaialdi garrantzitsuetan. Nazioartera hobekien saltzen dugun euskal zinema film laburra da. Milaka ikusle nazioarteko zinemaldi eta telebista kate ezberdinetan. Film luzeak nazioartera atera ere ez dira egiten. Eta begira dezagun gure zilbor-hestera (beste behin). Gure film luzeek gure hiriburuetako zinema aretoetan eta gure ikuslegoaren interes ezagatik astebete irauten dute (irauten badute). Film laburrekin emanaldi ezberdinak antolatzen dira hiriburu eta herrietako zinema, kultur etxe eta gaztetxeetan. Ez dute pelikula luzeen prestigioa baina, uste denaren aurka, gure kasuan behintzat, eragingarriagoak eta popularragoak direla esango nuke.

Zer egin behar da film labur bat egiteko

Gazte, heldu edo zaharra izan. Pelikulak ikusi. Lagun talde bat bildu. Komikiekin gozatu. Zer kontatu nahi duzun zeure buruari galdetu. Liburuak irakurri. Ingunuko kultur etxean zein baliabide eta ikastaro dauden galdetu. Antzerkira joan. Zinemagintzak bere hizkuntza duela ulertu eta hizkuntza hori ikasi. Margolariek euren koadroetan esan nahi digutena ulertzen saiatu... mila gauza aipa daitezke baina batez ere ausardia eta kemen aipatuko nituzke. Jarduera garestia izanik, baliabide ekonomiko eskasekin, prozesu luze eta neketsua izaten delako. Baina ekin ez ikasten da, beraz temati edo burugogor samarra izatea ez da txarra izaten. Eta ausardia eta kemen hori ere, lehendabiziko lan horren porrota bizkar gainean hartu eta hurrengo proiektuan buru-belarri sartzeko, behar-beharrezkoa izaten da.

Zinema Digitalaren askatasun arazoak

Labur aipatzearren, eta aurreko atalaren osagarri gisa, egun formatu digitalek ezarri dituzten parametro berriak aipatu nahi nituzke. Formatu digitalak zinema egiteko modu berriak ekarri ditu. Prozesua merketu du eta pelikula bat egiteko baliabideak edonoren eskuetan jarri ditu. Eskertzekoa. Zinema berez ez delako jarduera merkea.

Abantaila honetaz profitatzeko ordea gauza bat izan behar du zinemagileak argi. Film bat istorio bat da. Kontakizun bat. Kontzeptu bat. Zeluloidea edo bideo digitala istorio hori kontatzeko euskarria besterik ez. Nobela bat azal gogor eta paper garestiz eginiko edizioan edo fotokopiatan irakur dezakegu. Nobelak kontatzen duena ordea ez da aldatzen formatu aldaketarekin. Film bat egiteko prozesuarekin gauza bera gertatzen da. Alderdi teknikoan gauzak aldatzen dira formatu bat edo bestea erabili, baina istorioa kontatzerako orduan formatuak ez du garrantzirik. Gary Winick zinemagileak formatu digitala erabiltzen du bere lanetan eta zera dio formatu digitalari buruz:

Formatu digitalean film bat egiteko 35mmtan egiteko baino prestaketa handiagoa behar duzu. Diziplina handiagoa behar da, zinema digitalak askatasun gehiago ematen duelako.

Gure laburren arrakasta

Gure arrakasta ez dakit zehazki zertan datzan. Baina egia da, hain lurralde txikian eta ikus-entzunezko tradizio eskasekoa izanda, beste herrialde askorekin alderatuta lan ederrak egin izan direla. Arrazoi artistiko eta kreaziozkoak egon daitezke baina bada heziketa eta sukalde lan garrantzitsu bat.

1. *Kimuak* egitasmoa: Eusko Jaurlaritzak gure film laburrak mundu mailako jaialdietan zabaldu eta banatzeko sortutako egitasmoa. Kimuak eraginkorra izan bada, kalitatezko film laburrak barneratzeaz gain, zinema ezagutu eta maitatzen duen profesionalen eskuetan izan delako. Donostia Kulturako zinema ataleko jendea da hain zuzen Kimuak arrakastatsu bihurtu duena. Beste arrazoi bat, lehen aipatu bezala, film laburrak prestigioa ez izatea da. Inork ez du bere muturra sartu. Eusko Jaurlaritzak egitasmoan jarritako diru eskasaren truke ordain handia jaso du eta ETBko «gestoreak» ez dira oraindik enteratu Kimuak existitzen denik.

2. Euskal Herrian, hiri eta herri mailan antolatzen diren zinemaldi, zineklub, ekitaldi, ikastaro eta abarren in-

fluentzia: Nosferatu zikloa, Beldurrezko astea, Lekeitioko zinema bilera, Goieniz zinekluba, Larrotxene kultur etxe-ko ikastaro eta emanaldiak, Topaguneak antolaturiko film labur euskaldunen emanaldiak, FAS... hamaika jarduera hamaika zaletu anonimoei esker bizirik.

Pastitxe Baskitxe

Maui Pootiki, Turia, Te Onake a Nihe, Tohunga, Tahu & Maia, Mahi whakaari / Taku waimarie, Malama, Turanga - waewae...

Baskitxeok pastitxeak idazten abilezia berezia dugu. Edozein gairen inguruan aldarrikapen, manifestu eta adierazpen ugari idazteko joera dugu. Horretara behartuta ikusten dugu geure burua nahi baino gehiagotan. Batzuetan ordea joera hori proportziorik gabea da. Euskal zinemaren inguruan adibidez dozenaka artikulua idazten dugu. Ni, nire aldetik, nahiko nazkatuta nago beti gai honen inguruan aritzeaz. Baina kontua da batere kontsekuentea ez naizenez hemen natorkizuela beste behin euskal zinemaren inguruan txapa ematera.

Zeelanda Berria Ozeano Pazifikoan dago eta hego polotik gertuen dagoen herrialdea da. Hiru milioi t'erdiko populazioa du. Errugbia maite dute eta *The Lord of the Rings* eta gisa horretako filmentzat kokaleku aproposa izateaz gain, azken urteotan izaera propioa duen zinema industria bat garatu eta mundu osoan zehar erakustea lortu dute. Tarteka gure zinema aretoetara iritsi da Zeelanda Berriko filmerik: *The Piano, Once We Were Warriors, Whale Rider, The Locals...* Jakina, Zeelanda Berriko egoera ezin da parekatu Euskal Herrikoarekin eta euskal zinemaren aferrarekin. Zeelanda Berria estatu bat da. Ados. Hizkuntzaren ezaugarria kontuan hartu beharko genuke. Ados. Has gaitezen berriro. Zeelanda Berria Ozeano Pazifikoan dago eta hego polotik gertuen dagoen herrialdea da. Hiru milioi t'erdiko populazioa du. Errugbi selekzioak, kontrako taldea kokiltzeko, maori herriaren *Haka* dantzatzen du partida hasi aurretik. Pastitxeari atarikoia egin dioten hitz ho-

riek maorieraz idatziak daude. Izenburuak dira, azken hiru urteetan maorieraz eta maoriarrek egindako film luze, dokumental eta film labur batzuen izenburuak. Maoriena adibide bat besterik ez den arren, herrialde eta herri txikiak zinema egin dezaketela frogatzen du; zinemari esker isolamendua apurtu daitekeela azaltzen digu; zinemari esker kultura bat eta mundua ulertzeko modu bat zabaltzea posible eta errentagarria dela erakusten du.

Guk, ordea, gure euskal zinema santua gisa honetako pastitxeekin egiten dugu. Akziorako gaitasuna duen herria omen gara, baina zinema alorrean behintzat aritzea baino hausnartzea dugu nahiago. Azken urteotan, gurean, modu gerrillarian egindako zinemagintza besterik ez da ekoiztu. Film luzeak apenas, baina film labur arrakastatsu sorta ederra ekoiztea eta mundu osoan zehar banatzea lortu da. Kimuak bezalako ekimen bati esker, herrialde ezberdinetako milaka ikuslek ikusi dituzte film horiek («prestigiotsua goak» diren beste hainbat jarduera kulturek baino zabal-kunde handiagoa lortuz), baina film laburra ez da «benetako zinema» gurean; Aktoreen Batasunak adibidez ez zuen zinemagintza saririk eman 2003. urteko sari banaketan zinemagintzaren egoera salatzen. Film laburretan parte hartu zuten aktoreek ordea ez al zuten saririk merezi?

Guk, beste behin, ezer ez izatetik *Basquewood* izatera pasatu nahi dugu. Egun batetik bestera zinema industria bat osatu nahi dugu gurean: Oarsoaldeko *Cineccita*, zinema eskolak, liburu zuriak... beti ere EITBK esaten duenaren arabera. Gainera badirudi baietz, Eusko Jaurlaritzak erabaki duela euskal ikus-entzunezkoen alde zerbait egitea. Ez naiz hasiko hemen administrazioaren eta «ente» publikoaren aurka. Azken finean bi hauen magalean ez bada hemen ez delako nikristo mugitzen. Subentzionaturiko kultura batean bizi gara. Gustatu hala ez gustatu, beharrezkoa izan edo ez izan, euskal kulturak simulakrotik asko du.

Esan bezala, badirudi orain euskal ikus-entzunezkoak bultzatzeko asmoa dagoela. Ekoiztetxeak eskuak igurzten hasi dira pastela hain gertu ikustean. Ea aurrerapauso horiek zuhurtasunez egiteko gai garen, gure beharren arabera eta gure tamainako ikus-entzunezko industria bat sort-

zen asmatzen dugun; epe motzera begiratu beharrean epe ertain eta luzera jarraipena izango duena. Bestela, administrazioari ikus-entzunezko sukar hau pasatzen zaionean, eta adibidez euskal karrera espazialari ekiten dionean, ametsen fabrika honek berriro ere fabrikatik gutxi eta ametsetik asko izaten jarraituko du, 80ko hamarkadako is-pilatze hartan gertatu zen bezalaxe.

Gibel solasa

Urtebete igaro da «Pastitxe Baskitxea» idatzi nuenetik. Argitaratu ez zen aldizkari baterako eskatu zidaten. Egun ez dakit guztiz ados nagoen idatzitakoarekin, baina bere baitan utzi dut. Gai honen inguruan ere iritziak alda-garriak direla nabarmentzeko.

Aldatzen ez dena gure izaera ezkor eta negartia da. Euskal zinemas hitz egiten den bakoitzean profesionalen migrazioa eta jendeak kanpora ateratzeak suposatzen duen drama entzuten dugu beti. Nik ez dut ukatzen etxetik kanpo bizitzeak aldaketak eragiten dituenik baina pertsonalki kanpora ateratzea aberasgarria dela iruditzen zait. Niri, behintzat, zinemak atzerrira atera eta bertan ikasi, lan eta bizitzeko aukera eman dit. Gainera ez die-zaiogun inori iruzur egin. Zinema langileak ez dira garai bateko meatzari, marinel edo artzainak. Zinemak soldata onak eskaintzen ditu. Goi mailako profesionala da zine-man lan egiten duena, eta bere bizi maila ez da erdipurdi-koa izaten dagoen tokian dagoela.

Nik pertsonalki ez dut sinesten gure administrazioaren eta «ente» publikoaren gaitasunean. Are gehiago, adminis-trazio hori herriaren isla bat dela esango nuke. Gure herri honetan garrantzitsuagoa izan delako beti makina-erre-minta industria sormen kulturala baino. Interesatzen zai-gun kultura bakarra gure izaera nabarmentzen duen kul-tura da. Bizi dugun egoera ikusita ez da harritzekoa. Baina obsesio horrekin bizi garen bitartean nekez egingo dugu aurrera, nekez parekatuko gara beste herri batzuekin. Es-pedientea betetzeko film luze bakanak egingo dira. Sort-zaileen bultzada, ilusio eta kemenaren kontura hainbat

film labur ekoiztuko dira... baina oraingoz hori da gure zinema... mundu osoan arrakasta lortu baina bertan, gurean, interes gutxi pizten duena.¶